



GARAPENERAKO LANKIDETZA KONTSEILUAREN BILKURA

Lekua eta data: Leioa, 2012ko urtarrilaren 30a.

Hasiera ordua: 11:00

Amaiera ordua: 14:00

Presidentea:

Iratxe Amiano (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria)

Idazkaria:

Estibaliz Martínez (Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko teknikaria)

Bertaratutakoak:

Kontseiluko kideak

Joseba Zuazo Olozaga

María José Maeztu

Imanol Zubero

Maria José Mijangos

Kontseiluko kide ez direnak

Unai Etxeberria Villate

Gema Celorio

Marta Macho

Bertaratu ez direnak:

Amaia Maseda

Koldo Unceta Satrustegi

Anaut Patterson Mendiola

Luis Guridi

Eneko Calle

Khalil Ould Said

Joseba Sainz de Murieta Mangado

Gai zerrenda:

1. Aurreko aktak onartzea.
2. UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren arloko Plana gauzatzeko aurrerapausoak.
3. Galderak eta eskaerak.

Akta

Gizarte Erantzukizuneko zuzendari Iratxe Amianok eman dio hasiera bilkurari.

Gai zerrendako lehenengo puntua: aurreko aktak onartzea.

Lankidetzaren Kontseiluaren **2011ko abenduaren 2ko** bilkurari dagokion akta onartu da.



Gai zerrendako bigarren puntua: UPV/EHuko Garapenerako Lankidetzaren arloko Plana gauzatzeko aurrerapausoak.

Iratxe Amianok **IV.3. puntuari** dagokion dokumentua aurkeztu du (“Jarduketa ildo estrategikoak”). Bertsio hau egiteko, kontuan hartu dira 2011ko abenduaren 2ko bilkuran hartutako erabakiak.

Iratxek azaldu du bilkura honetan dokumentua egokitzeko lan egingo dutela, 2012-2017ko UPV/EHuren Plan Estrategikoaren oinarriei jarraituz (Errektoretza Taldeak duela gutxi argitaratu ditu oinarri horiek). Kontseiluko kide guztiei bidali zieten dokumentu hori posta elektronikoko bidez. Errektoretza Taldeak hemen lantzen ari garen Garapenerako Lankidetzaren arloko Plana kontuan hartuko du aipatutako dokumentuko 5. puntuko (Ardatz estrategikoak) 5. ardatza (Gizarte konpromisoa) idaztean. Beraz, garrantzitsua da otsaila amaitu aurretik Garapenerako Lankidetzaren arloko Plana prest edukitzea (gutxienez ildo nagusiak).

Iratxek Gema Celorio, Hegoa Institutuko garapenerako hezkuntzaren arloko aditua, gonbidatu du bilkurara, lan hori egiten lagun diezaien. Profesional honek Plan Estrategikoa osatzen lagunduko die eta garapenerako hezkuntzaren ikuspegi orokor bat emango die.

Gema Celorioren iritziz, 2012-2017ko UPV/EHuren Plan Estrategikoaren oinarriak irakurri ondoren, dokumentu hau garapenerako hezkuntzaren ikuspegi oso mugatuarekin ari dira lantzen; kontzeptua sensibilizazio ekintza gisa ulertzen dute, baina hori baino asmo handiagokoa eta zeharkakoagoa da. Bere ustez, ez genuke 5. ardatzean (gizarte konpromisoa) bakarrik hitz egin behar garapenerako hezkuntzaz, baita gainerako ardatzetan ere (prestakuntza, ikerketa, nazioartekotzea eta gobernantza, eta kudeaketa).

Unai Etxeberria Bulegoko teknikaria ados dago iritzi horrekin, baina zeharkakotasunak dituen arriskuek kezkatzen dutela adierazi du; gaia lausotzeko eta ondo ez irudikatzeko beldurra du.

Ildo horretatik, Imanol Zuberok uste du garapenerako lankidetzak UPV/EHuren ikuspegiaren eta misioaren zati izan behar lukeela (dokumentuaren 3. puntua). Garapenerako hezkuntzak gure unibertsitatearen nortasun ikurretako bat izan behar luke, ez epigrafe bat, besterik gabe. Premisa hori oso argi dute beste unibertsitate batzuetan, eta hezkuntzarako lankidetzak beren ildo estrategiko guztietan sartzten dute zeharka. Bere iritziz, eztabaida irekitzeko eta garapenerako hezkuntza UPV/EHuren misioan eta ikuspegiaren sartzeko garaia da.

Ondorioz, hausnarketa horiek guztiak kontuan hartuta, Iratxek Lankidetzak Kontseilutik garapenerako hezkuntza ildo estrategiko guztietan sartzeko lan egitea proposatu du. Horrez gain, Gema Celoriok esan du oso garrantzitsua dela une honetan garapenerako hezkuntza lantzeko dugun modua gainditzea (kontzeptua laguntzaren ikuspegitik bakarrik begiratzen dugu: garapenerako lankidetzak baldintza txarretan dauden herrialdeei garapenerako laguntza ematean bakarrik oinarritzen dugu, hemen aldatu beharrekoa kontuan hartu gabe).

Unai Etxeberriak adierazi du gai hori sakonki eztabaidatu behar dela. Iratxeren hitzetan, Garapenerako Lankidetzaren arloko Planak izan behar du eztabaida horren abiapuntua.

Bestalde, eta **IV.3. puntuaren** (“Jarduketa ildo estrategikoak”) dokumentu berria aztertuz, Iratxek “Babes eta laguntza teknikoak” epigrafeak aldatzea, eta horren ordez “Garapenerako lankidetzak proiektuak” jartzea proposatu du. Maria José Mijangosek epigrafe horrek teknologiaren transferentzia ere barne har dezala proposatu du, orain arte ez baita gai hori ildo estrategiko bakar batean ere sartu.

Hausnarketa horiek guztiak kontuan hartuta, erabaki hauek hartu dituzte:

- Bi orritan laburtzea I., II. eta III. puntuetan idatzitakoa. Hegoa Institutuari emango diote lan hori egiteko ardura.
- Garapenerako Lankidetzak Bulegoko teknikari Unai Etxeberriari ematea 1. puntua (Garapenerako lankidetzaren aurrekariak eta bilakaera UPV/EHUn) eta 4. puntua (Garapenerako lankidetzaren eragileak) egiteko ardura.
- 2. puntuaren izenburua aldatzea (UPV/EHuren garapenerako lankidetzaren arloko misioa eta ikuspegia), eta “Planaren helburuak eta xedea” jartzea.
- Hauek izango dira jarduketa ildo estrategikoak (3. puntua):



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIZARTE ERANTZUKIZUN ETA UNIBERTSITATE
HEDAKUNTZAKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE RESPONSABILIDAD SOCIAL Y
PROYECCIÓN UNIVERSITARIA

- a) Prestakuntza
 - b) Ikerketa
 - c) Zabalkundea eta sentsibilizazioa
 - d) Erakundea indartzea
 - e) Garapenerako lankidetzaren arloko proiektuak eta teknologia transferentzia.
- Garapenerako Lankidetzaren arloko Planaren aurkibide nagusitik 4., 5., 6., 7. eta 8. puntuak kentzea. 9. puntua (Garapenerako lankidetzaren eragileak) utzi egingo dute, baina 4. puntu bihurtuko da.

(Aurkibide nagusi berria 1. eranskin gisa erantsita dago)

- Errektoretza Taldeak 3. puntuan sartzeko paragrafo bat egitea: UPV/EHUREN misioa eta ikuspegia. Horretarako, proposamenak eskatuko dizkiete prozesuaren hasieran egindako inkestan Garapenerako Lankidetzaren arloko Planaren parte hartzeko interesa erakutsi zuten pertsona guztiei (AZPko langileak, irakasle eta ikertzaileak, eta ikasleak). Ekarpenak jasotzeko, posta zerrenda bat egingo da beren helbide elektronikoen, eta otsailaren amaierarako beren proposamenak egiteko eskatuko zaie. Bulegoko teknikariak arituko dira posta zerrenda horretako moderatzaile gisa.
- Hurrengo bilkuran aurkeztuko dira kontsulta horretatik ateratako zirriborroak.

Hurrengo bilkura 2012ko **otsailaren 13an**, 11:00etan, egitea erabaki dute.
Aztergai gehiagorik egon ez denez, bilkura amaitutzat eman dute.



1. ERANSKINA

AURKIBIDE NAGUSIA

LABURDURAK ETA AKRONIMOAK

I.- AURKEZPENA

II.- SARRERA

1. Lankidetzaren plangintza
2. Garapenerako Lankidetzaren arloko UPV/EHUren PEren helburu nagusiak

III.- GARAPENERAKO UNIBERTSITATE LANKIDETZA

- 1) Garapenerako lankidetzaren araudi esparrua
- 2) Garapenerako unibertsitate lankidetzak

IV.- GARAPENERAKO LANKIDETZA UPV/EHU_n

- 1) Garapenerako lankidetzaren aurrekariak eta bilakaera UPV/EHU_n
- 2) Garapenerako Lankidetzaren arloko Planaren helburuak eta xedea
- 3) Jarduketa ildo estrategikoak
 - a) Prestakuntza
 - b) Ikerketa
 - c) Zabalkundea eta sentsibilizazioa
 - d) Erakundea indartzea
 - e) Garapenerako lankidetzaren arloko proiektuak eta teknologia transferentzia.
- 4) UPV/EHUko lankidetzaren eragileak

8.- Ebaluazioa

- Epe motza
- Epe ertaina
- Epe luzea
-

9.- ERANSKINAK: PEko helburuen, emaitzen, jardueren eta adierazleen matrizea